

BILBOKO ERCILLA KALEKO 13AN KOKATUTAKO ERAIKINEKO LAU SOLAIRUAK EUDELEKO IDAZKARITZA BERRIRAKO ZAHARBERRITZEKO BETEARAZPEN PROIEKTUAREN IDAZKETA ETA OBRA ZUZENDARITZARAKO, KALITATEAREN KONTROLERAKO ETA SEGURTASUN ZEIN OSASUNAREN ARLOKO KOORDINAZIORAKO OSTEKO LAGUNTZA TEKNIKOAK KONTRATATZEKO LEHIAKETAKO EPAIMAHAIAREN BILERAKO AKTA.

Bilboko Zabalguneko plazako 5. zenbakian kokatutako EUDELEko Bizkaia aretoan, 2017ko irailaren 12ko 09:00etan, horretarako deialdia jaso ondoren, Bilboko Ercilla kaleko 13an kokatutako eraikineko lau solairuak EUDELEko idazkaritza berrirako zaharberritzeko betearazpen proiektuaren idazketa eta obra zuzendaritzarako, kalitatearen kontrolerako eta segurtasun zein osasunaren arloko koordinaziorako osteko laguntza teknikoak prozedura irekiaren bidez kontratatzeke lehiaketako epaimahaia batzartu da.

Baldintzen Orriko hamabigarren klausulan xedatutakoaren arabera, honakoak izango dira epaimahaikideak:

- Mahaiburutza
Titularra: Imanol Landa Jauregi (Getxoko alkatea eta EUDELEko elkarteburua)
Ordezkoa: Ager Izagirre Loroño (Mungiako alkatea)

- 1. kidea
Titularra: Josune Irabien Marigorta (Amurrioko alkatea)
Ordezkoa: M^a Natividad López de Muniain Alzola (Burgeluko alkatea)

- 2. kidea
Titularra: Jose Antonio Santano Clavero (Irungo alkatea)
Ordezkoa: Mikel Torres Lorenzo (Portugaleteko alkatea)

- 3. kidea
Titularra: Eneko Maioz Ganboa (Orexako alkatea)
Ordezkoa: Garazi López de Etxezarreta Auzmendi (Errenteriako Udaleko alkateordea)

- 4. kidea
Titularra: Mar Zabala Mardaras (EUDELEko zuzendari nagusia)
Ordezkoa: Roberto Cañón Gorostiza (EUDELEko Antolakuntzako burua)

- 5. kidea
Titularra: Xabier Zabala Zuazo (Mungiako Udaleko arkitektoa)
Ordezkoa: Juan Marco Lozano Rodríguez (Mungiako Udaleko arkitektoa)

- 6. kidea
Titularra: Matxalen Acasuso Atutxa (EHAEOKo arkitekto dekanoa)
Ordezkoa: Nerea Alonso Undabeitia (EHAEOKo arkitekto diruzaina)

- 7. kidea
Titularra: Arantxa Kintana San Vicente (Bizkaiko EHAEOKo arkitekto bokala)
Ordezkoa: Irati Burgues Asteasu (Bizkaiko EHAEOKo arkitekto idazkaria)

- Idazkaria (hitzarekin, baina botorik gabe)
Titularra: Leire Fuente Bordagaray (EHAEOKo arkitektoa)
Ordezkoa: Uxue Campo Múgica (EHAEOKo aholkulari juridikoa)

Gai saihestezinen ondorioz, Presidentetzako kideak eta 2. kide-taldeko kideak ezin izan dira adierazitako egunean etorri. Hala ere, kideen erdiak eta bat gehiago egon direnez, honakoek eratu dute Epaimahaia:

- Batzordekideak:
 - Josune Irabien Marigorta (Amurrioko alkatea)
 - Eneko Maioz Ganboa (Orexako alkatea)
 - Roberto Cañón Gorostiza (EUDELeke Antolakuntzako burua)
 - Xabier Zabala Zuazo (Mungiako Udaleko arkitektoa)
 - Matxalen Acasuso Atutxa (EHAEOko arkitekto dekanoa)
 - Arantxa Kintana San Vicente (Bizkaiko EHAEOko arkitekto bokala)

Idazkaria: Uxue Campo Múgica (EHAEOko aholkulari juridikoa)

Idazkariak jakinarazi duenez, bigarren faseko proposamenak aurkezteko epea amaitutakoan, hautatutako hiru enpresek behar bezala eta garaiz aurkeztu dituzte euren lanak. Oinarrietan eskatutako anonimatua bermatu ondoren, Epaimahaiko idazkariak proposamenak aztertu ditu, eta, horretarako, eskatutako agirien gutun-azalak ireki ditu. Guzti-guztiek eskatutako guztia bete dute, eta honakoak dira haien leloak:

- 100 urtemas
- Gogoratu
- Hutsa Betez

Jarraian, hiru lanak zehatz-mehatz eta banan-banan aztertu dira, orrietako 14. klausulan araututako balioespen-irizpideen arabera. Banakako azterketa egin ostean, epaimahaikideek irizpideak partekatu dituzte, eta, horretarako, proposamenei buruzko eztabaida bizia garatu dute.

Eztabaidaren ostean, Epaimahaiak aho batez erabaki du hurrengo taulan agertzen diren puntuazioak ematea.

	Proposamen arkitektonikoa (50 puntu)	Eraginkortasun energetikoa (25 puntu)	Bideragarritasun funtzionala (15 puntu)	Prezioa (10 puntu)	Guztira
100 urtemas	40	20	10	10	80
Gogoratzuz	20	20	15	10	65
Hutsa Betez	30	25	5	10	70

100 urtemas

Proposamen irabazlea izan da, eremuak ondoen egokitzen eta banatzen dituen delako. Hori dela eta, barruko zirkulaziorako zein mugikortasunerako eremu irisgarriak proiektatzen ditu, eta egitura bera sendotzen du. Oso ontzat eman da patioari onura ateratzea eta komunen zein officearen kokapena egokia izatea.

Bere bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa kontuan hartuta, erraz betearazteko moduko proposamena da.

Gogoratzuz

Irudia eta eremuak atseginak badira ere, ez du uste bezain garapen funtzional egokia lortu. Edonola ere, oso ontzat eman da honakoa alde aurretik aztertu izana: lehendik zegoen eraikina bera, instalazioak, sartzeko kontrol xehatua eta instalazioak egurasteko patioa.

Hutsa Betez


Proposatutako materialei zein instalazioei buruz egin duten azterketa nabarmendu beharra dago. Irudi atsegin bezain eroso eskaintzen du, gune atseginak sorrarazten dituzten eremuak erabiltzean. Nolanahi ere, ez du uste besteko maila lortu barruko mugikortasunari eta funtzionaltasunari begira.

Bide batez, egindako ahalegina zein lanak nabarmendu nahi ditu Epaimahaiak, eta lehiakideei prozeduran parte hartzeagatik eman nahi dizkie eskerrak.

Proposamen irabazlea “100 urtemas” leloduna izan dela kontuan hartuta, 1. faseko lelo bereko 1. gutun-azala ireki da une honetan. Horren arabera, proposamen hori ABITURA Arquitectos, S.L.P. enpresak aurkeztu du, eta bere proposamen ekonomikoa 81.675 eurokoa izan da (BEZ barne).

Ez denez beste aztergairik izan, 12:30ean amaitutzat eman da bilera hau.

En Bilbao, a 12 de septiembre de 2017




Fdo.: Josune Irabien Marigorta




Fdo.: Eneko Maioz Ganboa



Fdo.: Roberto Cañon Gorostiza




Fdo.: Xabier Zabala Zuazo



Fdo.: Matxalen Acasuso Atutxa



Fdo.: Arantza Kintana San Vicente



Fdo.: Uxue Campo Mugica (Secretaria)